

PENTSIO OSAGARRIAK KOB RATZEKO MODUAREN AZTERKETA



Aurkibidea

1. SARRERA: XEDEA, LANAREN IRISMENA ETA TXOSTENAREN EGITURA	4
2. PENTISIOAK KOBRATZEKO MODALITATEAK ETA AURRE EGIN BEHARREKO ARRISKUAK.....	6
3. EUROPAKO HERRIALDEETAN PENTISIOAK KOBRATZEKO AUKERAK.....	9
3.1 Herrialdeka zer modalitate dauden	10
3.2 Pentsioak kobratzeko moduari buruzko datu batzuk.....	13
3.2.1 Europa.....	13
3.2.2 Espainia.....	13
3.2.3 EAE.....	17
4. HIRU HERRIALDEREN AZTERKETA XEHATUA: ERRESUMA BATUA, ALEMANIA ETA HERBEHEREAK.....	20
4.1 Gaia zertan den	21
4.1.1 Erresuma Batua	22
4.1.2 Alemania.....	23
4.1.3 Herbehereak.....	24
4.2 Pentsiodunek kobratzeko moduaren hautaketan eragina zer faktorek duten	24
4.2.1 Informazioaren eskuragarritasuna	25
4.2.2 Informazioaren konplexutasuna eta finantza-ezagutzarik eza.....	26
4.2.3 Finantza-aholkularitza	26
5. PENTISIOAK DESMETATZEKO PRAKTIKEI EDO KOBRATZEKO MODUEI BURUZKO EZTABAIDAK.....	30
5.1 Azken eztabaidak EBn	31
5.1.1 Kontsumitzailearentzako informazioa.....	31
5.1.2 Desmetatzeko produktu berriak diseinatzea	31
5.2 Pentsioak desmetatzeko praktikei edo kobratzeko moduei buruzko erreforma eta eztabaida nazionalak	32
5.2.1 Erresuma Batua	32
5.2.2 Alemania.....	33
5.2.3 Herbehereak.....	33
6. IDEIA NAGUSIAK	36
Eranskina BIBLIOGRAFIA.....	40

Aurkibidea**Taulen aurkibidea**

3.1 taula.	Pentsioak kobratzeko aukerak herrialdeka	11
3.2 taula.	Aukeran dauden errenta moten laburpena herrialdeka	12
3.3 taula.	Enplegu-prestazioen banaketa ehunekotan, Estatuan ordaintzeko moduaren arabera. 2021	14
3.4 taula.	Enpleguko pentsio-planetako kobrantza-moduen bilakaera estatuan (%).....	14
3.5 taula.	Ordaindutako prestazio pertsonalen banaketa ehunekotan, ordaintzeko moduaren arabera. Estatua. 2021.....	15
3.6 taula.	Estatuko pentsio pertsonalen planetako kobratzeko moduen bilakaera. 2014-2021.....	16
3.7 taula.	Pentsio-plan pertsonalen prestazioen onuradunen banakapena ehunekotan, ordaintzeko moduaren arabera. Estatua. 2021	16
3.8 taula.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioak kobratzeko modua. 2021	18
3.9 taula.	Enpleguko BGAEen prestazioak kobratzeko modua. 2021	18
3.10 taula.	Banakako BGAEen prestazioak kobratzeko modua. 2021.....	18
4.1 taula.	Bigarren Oinarriaren xehetasuna aztertutako hiru herrialdeetan	21
4.2 taula.	Desmetatze-produktu ohikoenak.....	22
4.3 taula.	Informazioarekin lotutako oztopo nagusiak identifikatzea.....	25
4.4 taula.	Finantza-aholkularitzarekin lotzen diren oztopo nagusiak identifikatzea.....	27
4.5 taula.	Finantza-aholkulari nagusiak herrialdearen arabera.....	27

Grafikoen aurkibidea

3.1 grafikoa.	Enpleguko pentsio-planen onuradunen banaketa ehunekotan, prestazioak kobratzeko moduaren arabera. Estatua. 2021.....	15
3.2 grafikoa.	Pentsio-plan pertsonalen onuradunen banaketa ehunekotan, prestazioak kobratzeko moduaren arabera. Estatua. 2021.....	16
3.3 grafikoa.	Ordaindutako prestazioen zenbatekoaren banaketa, pentsioa kobratzeko moduaren arabera. 2021.....	17
Grafikoa 3.4	Ordaindutako prestazioen eta bazkide pasiboen banaketa, pentsioa kobratzeko moduaren arabera. 2021.....	17
4.1 grafikoa.	Biziarako errenten eta arriskua murrizteko produktuen salmenta eta bolumena. Erresuma Batua (2009-2015)	23

1.

**SARRERA: XEDEA, LANAREN
IRISMENA ETA TXOSTENAREN
EGITURA**

1. Sarrera: xedea, lanaren irismena eta txostenaren egitura

Dokumentu honek sistema osagarrietan pentsioak kobratzeko modua aztertzen du, enplegu-planetan arreta berezia jarrita.

Ekarpen finkatuko planetan (EF) dago arretagunea; izan ere, prestazio finkatuko planetan (PF), elkartekideak ezin du aukeratu bere pentsio-planean sortutako ondarea nola desmetatu; hau da, pentsiorako aurrezkiak nola kobratu. Hala ere, nabarmentzekoa da Europan ikusitako joerak aldaketa orokorra erakusten duela: prestazio finkatuko (PF) araubideetatik ekarpen finkatuko araubideetara (EF).

Nazioarteko erakundeen (Europako Batzordea, ELGA, EIOPA-European Insurance and Occupational Pensions Authority, EAPSPI-European Association of Public Sector Pension, eta abar) argitalpenetan oinarrituta egin dugu dossier hau, pentsioetan eskumena duten administrazioen txostenak eta webgunek kontsultatuz eta arlo horretako adituek egindako txostenak aztertuz.

Txosten honen egiturari dagokionez, sarrera horren ondoren, bigarren kapituluan labur-labur azaltzen dira dauden kobrantza-kontzeptuak edo -modalitateak, bai eta aurre egin beharreko arriskuak ere.

Hirugarren kapituluan, eskematikoki, Europako herrialde nagusietan pentsio pribatuak kobratzeko dauden aukera zehatzak ageri dira, baita pentsio pribatuen banaketari buruzko zenbait datu ere, Europako, Estatuko eta EAeko kobratzeko modalitatearen arabera.

Laugarren kapituluan egoera zehatzago aztertu da erreferentziako hiru herrialde hauei dagokienez: Herbehereak, Erresuma Batua eta Alemania. Herrialde horietan aurreztaileen portaerari buruz egindako ikerketa eta inkestei esker, halaber, sakondu ahal dugu kobratzeko moduari buruzko aukeren gaineko erabakiak hartzean eragina zer faktorek izaten duten.

Bosgarren kapituluan, Europar Batasunean eta arestian aipatutako erreferentziako hiru herrialdeetan –hau da, Erresuma Batuan, Alemanian eta Herbehereetan– pentsiorako aurrezkiak desmetatzeko prozesuetan eragina izan dezaketen eztabaida nazional nagusiak azaltzen dira.

Azkenik, seigarren kapituluan, indar-ideien eta ondorio garrantzitsuenen laburpen txiki bat jaso dugu.

2.

PENTSIOAK KOB RATZEKO MODALITATEAK ETA AURRE EGIN BEHARREKO ARRISKUAK

2. Pentsioak kobratzeko modalitateak eta aurre egin beharreko arriskuak

Azterketa bera egin aurretik, erabili beharreko oinarriko kontzeptuak aurkeztea komeni da.

Diego Valerok «*Tendencias en materia de pensiones privadas. El papel de las rentas vitalicias*» (Pentsio pribatuen arloko joerak. Biziarteko errenten zeregina) txostenean laburbiltzen duen bezala, «erretiroa hartutakoan bi aukera daude pentsioak osatzeko: tresna espezifikoen bidez (pentsio-planak, esaterako) edo ez-espezifikoen bidez (aurrezteko beste modu batzuk; etxebizitza, bereziki). Tresna espezifikoetan desmetatzeko, kapitalak edo errentak erabil ditzakegu, eta horiek hainbat aukera onartzen dituzte (finkoak/aldakorrak, berehalakoak/geroratuak, banakakoak/bateratuak, etab.). Azkenaldian, formula hibridoak garatzen ari dira; diru-ateratze programatuak, adibidez. Bestalde, tresna ez-espezifikoen bidezko desmetatzeko –eta bereziki horiek ez-likidoak badira–, aktibo horiek likido bihurtzeko aukera ematen duten produktuak erabil daitezke. Kasu horretan, etxebizitza da aurrezteko iturri nagusia, eta likidezia emateko beharrenden ondorioz alderantzizko hipotekak bezalako produktuak sortu dira; oraindik garapen txikia izan badute ere, eginkizun garrantzitsua aurreikusten zaie».

Pentsio-sistemetan dauden kobrantza-modalitateak, azken batean, honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. **Errenta** gisa: prestazio fincoen edo aldakorren ordainketa bermatuak dira, epe erregularretan (hilean edo urtean behin), harik eta errentaren titularra hil edo epe bat amaitzen den arte.

Hona hemen kategoria horretako produkturik ohikoenak:

- **Biziarteko errenta:** titularraren heriotzarekin amaitzen den errenta. Bizi-luzetasunaren arriskuaren aurkako aseguruia da, hortaz, modalitate hau. Biziarteko errentak, berriz, honelakoak dira:
 - Finkoak: errentaren interes-tasa aurrez zehaztuta dago.
 - Indexatuak: urtean jaso beharreko zenbatekoa handitzea bermatuta dago, inflazioarekin lotuta normalean.
 - Aldakorrak: interes-tasak aldakuntza-irizpideren bati jarraitzen dio, inbertsio-tresnaren batekin lotuta normalean.
 - Mistoak: zati bat interes finko bermatukoa izaten da, eta beste bat, aldakorra, errenta-hornitzailearen inbertsioen arrakastari lotuta maiz.
- **Finantza-errenta:** alde aurretik ezagutzen den denboraldi jakin baten ondoren eteten da, titularraren bizitza edozein dela ere.

Gainera, errentak berehalakoak edo geroratuak ere izan daitezke, lehen ordainketa noiz egiten den: kontuan hartutako lehen aldian edo denboran aurrerago.

Errentak banakakoak edo bateratuak izango dira, halaber. Azken horiei dagokienez, adostutako ehunekoa itzultzen zaio bizirik gelditu den ezkontideari.

2. Pentsioak kobratzeko modalitateak eta aurre egin beharreko arriskuak

2. **Diru-ateratze programatu** modura: erretiratuak aukeratzen du urtero zer zenbateko kobratzen duen erretirorako metatutako kapitaletik (hori inbertitzen jarrai daiteke). Titularra hiltzen denean, onuradunei ordainduko zaizkie gelditzen diren zenbatekoak. Kasu honetan ez dago bermerik; diru-ateratze programatuak pentsioaren urteko ordainketa biziarteko errenta izango balitz bezala kalkulatu du urte horretan, eta hurrengo urtean ordaindu beharreko zenbatekoa gelditzen den kapitalaren arabera kalkulatu da berriz, kapital hori kapital-merkatuetan egindako inbertsioetik lortutako interes-tasaren arabera eguneratuta. Erretiroa kobratzeko modu hori errenta aldakor bat da azken batean, baina ez du eragozten metatutako funtsak agortzea (izan ere, prestazioa denboran murrizten joatea da joera), ezta, bestalde, legatua edo oinordetza uzteko aukera ere.
3. **Kapital** gisa: ordainketa bakarra egiten da erretiroa hartzean, eta onuradunak dirua nahi bezala erabiltzeko aukera du. Metatutako aktibo guztiak edo horietako batzuk jasotzen dira erretiroa hartzean.
4. **Produktu hibrido** gisa (edo bermatu gabeko pentsioa): hau da, bi osagaiak ditu, programatutako diru-ateratzea eta biziarteko errenta. Nahiko malgua da.

Hortaz, arretagunea desmetatzeko fasean jartzen badugu, bi alderdi hauen arteko oreka bilatu behar da: malgutasuna (ustekabeko egoerei aurre egitea, zorrak ordaintzea edo herentzia uzteko aukera) eta arriskuetatik babestea. Eskuragarri dauden desmetatze-produktuek hainbat arriskuren aurkako estaldura ematen dute, baita zenbait berme ere:

- **Bizi-luzetasunaren arriskua:** nor bere diru-sarrerak/baliabideek baino gehiago irauteko arriskua; hau da, aurreikusi baino luzeago biziz gero, errenta txikiagoa izateko edo inolako errentarik ez izateko arriskua.
- **Kapitalaren babesa:** pentsio-eskubideak galtzetik babesteko da (goiz hilez gero edo inbertsioak emaitza txarrak baditu, adibidez).
- **Inflazio-arriskua:** diru-sareren maila prezioen aldaketetara ez egokitzeko arriskuari dagokio.

3.

EUROPAKO HERRIALDEETAN PENTSIOAK KOBRAZTEKO AUKERAK

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.1 HERRIALDEKA ZER MODALITATE DAUDEN

EIOPAk (European Insurance and Occupational Pensions Authority) 2014ko txostenean emandako datuen arabera (*Fact Finding Report on Decumulation Phase Practices*), eta arreta IORP Zuzentarau¹aren araberako sistemetan jarrita, estatu kide gehienetan errenta moduko kobrantza nahitaezkoa (zati bat edo % 100) edo borondatezkoa (posiblea) izan daitekeela egiaztatu da (3.1 taula).

Sei estatu kideetan –Austrian, Finlandian (Prestazio Finkatua), Grezian, Herbehereetan, Norvegian eta Suedian– errenta moduan ordaintzea nahitaezkoa da % 100ean da nahitaezkoa. Bost estatu kideetan –Kroazian (zenbait plan mota), Italian, Lituaniar, Portugalen eta Eslovenian– errenta moduan ordaintzea zati batean da nahitaezkoa. Hamabost estatu kide hauek (horri buruzko galdetegi baten bidez) errenta moduan ordaintzea aukera posible gisa adierazi zuten: Belgikak, Ziprek, Alemaniak, Estoniak, Espainiak, Hungariak, Irlandak, Lituaniak, Luxenburgok, Maltak, Eslovakiak eta Erresuma Batuak.

Programatutako diru-ateratzeak baimenduta daude herrialde hauetako enplegu-sistemetan: Bulgarian, Alemanian, Danimarkan, Estonian, Finlandian, Kroazian, Liechtensteinen, Luxenburgon, Letonian, Maltan, Polonian, Eslovakian eta Erresuma Batuan. Ez daude baimenduta, ordea, Austrian, Belgikan, Zipren, Espainian, Frantzian, Grezian, Hungarian, Irlandan, Italian, Lituaniar, Herbehereetan, Norvegian, Portugalen, Suedian eta Eslovenian.

IORP sistemei lotutako pentsioak ezin dira kapital moduan kobratu hiru estatu kideetan: Herbehereetan, Norvegian eta Suedian.

IORP ez diren sistemei begiratuz gero, prestazioak kobratzeko moduan egoera-heterogeneotasun handiagoa dagoela ikusten da.

¹ IORP: Institutions for Occupational Retirement Provision.

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.1 taula. Pentsioak kobratzeko aukerak herrialdeka

		Errenta		Kapitala		Programatutako diru-ateratzea		Diru-sarreren murrizketa	
		IORP ⁽¹⁾	ez-IORP	IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP
AT	Austria	x	x	x	x				
BE	Belgika	x	x	x	x				
BG	Bulgaria	x		x		x			
CY	Zipre	x		x					
CZ	Txekiako Errep.								
DE	Alemania	x		x		x		x	
DK	Danimarka	x	x	x	x	x	x		x
EE	Estonia	x	x	x	x	x	x		
ES	Espainia	x	x	x	x			x	x
FI	Finlandia	x		x		x			
FR	Frantzia		x	x	x				
GR	Grezia	x		x					
HR	Kroazia	x	x	x	x	x	x		
HU	Hungaria	x	x	x	x				
IE	Irlanda	x	x	x	x			x	x
IS	Islandia		x		x		x		x
IT	Italia	x	x	x	x				
LI	Liechtenstein	x	x	x	x	x			
LT	Lituania	x	x	x	x				
LU	Luxenburgo	x		x		x			
LV	Letonia	x		x		x			
MT	Malta	x	x	x	x	x	x		
NL	Herbehereak	x	x						
NO	Norvegia	x	x				x		
PL	Polonia			x	x	x	x		
PT	Portugal	x	x	x	x		x		
RO	Errumania			x	x				
SE	Suedia	x	x						
SI	Eslovenia	x	x	x					
SK	Eslovakia	x	x	x		x	x		
Erresuma Batua		x		x		x		x	

⁽¹⁾ IORP: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentaraua, enpleguko pentsio-funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzkoa.

Oharra: Herrialde gutxi batzuek –Espainiak, Hungariak, Lituaniak, Poloniak eta Erresuma Batuak– baino ez zituzten, gainera, taulan zehaztutako ez bestelako kobrantza-aukerak.

Iturria: EIOPA's Fact Finding Report on Decumulation Phase Practices, 2014

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

Estatu kideetako enplegu-sistemetan pentsioak kobratzeko aukeran dauden errenta motei begiratzuz gero (betiere EIOPAK estatu kideei bidalitako galdetegi baten bidez lortutako datuen arabera), horietako gehienek biziarteko errenta gisa ordaintzeko aukera ematen dutela ikusten da.

Beste modalitateak ez dira hain ohikoak (baterako biziartekoa, finantzarioa, aldi baterakoa, biziartekoa legatu edo itzulketarekin, errenta hobetua edo hondatua, alegia).

3.2 taula. Aukeran dauden errenta moten laburpena herrialdeka

		Biziarteko errenta		Baterako biziarteko errenta		Finantza-errenta		Aldi baterako errenta		Biziarteko errenta, legatuarekin		Errenta hobetua edo hondatua	
		IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP	IORP	ez-IORP
AT	Austria		x	x			x	x	x				x
BE	Belgika	x	x	x	x			x					
BG	Bulgaria							x					
CY	Zipre	x		x									
CZ	Txekiako Errepublika												
DE	Alemania	x		x		x		x		x			
DK	Danimarka	x	x			x	x	x	x		x		
EE	Estonia	x	x	x	x	x	x	x		x	x		
ES	Espainia	x	x			x	x	x	x	x	x		
FI	Finlandia	x						x		x			
FR	Frantzia	x	x							x	x		
GR	Grezia	x		x									
HR	Kroazia	x	x	x		x	x			x	x		
HU	Hungaria												
IE	Irlanda	x	x	x								x	x
IS	Islandia		x		x		x						
IT	Italia	x	x							x	x		
LI	Linchestein	x	x			x		x		x			
LT	Lituania		x								x		
LU	Luxenburgo	x						x					
LV	Letonia												
MT	Malta	x	x	x		x	x	x	x	x	x	x	x
NL	Herbehereak	x	x	x				x					
NO	Norvegia	x	x					x	x				
PL	Polonia												
PT	Portugal	x	x	x	x		x	x	x	x	x		
RO	Errumania												
SE	Suedia	x	x	x		x		x					
SI	Eslovenia	x	x							x			
SK	Eslovakia												
Erresuma Batua		x		x		x		x		x		x	

⁽¹⁾ IORP: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentaraua, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoa.

Iturria: EIOPA's Fact Finding Report on Decumulation Phase Practices, 2014

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.2 PENSIOAK KOBRATZEKO MODUARI BURUZKO DATU BATZUK

3.2.1 Europa

EFRPk (IPE, gaur egun) pentsioen kobrantzari emandako 2011ko datuak² –Diego Valeroren «*Tendencias en materia de pensiones privadas. El papel de las rentas vitalicias*» (Pentsio pribatuen arloko joerak. Biziarteko errenten zeregina) txostenean jasoak– kontuan hartuta, *Onuradun gehienek (% 45) prestazioa biziarteko errenta gisa jasotzen zuten, eta % 25ek, berriz, errenta motaren bat kapitalarekin konbinatuta. Kobratzeko gainerako moduetatik, % 20k kapitala aukeratzen zutela nabarmendu behar da. Araudiak eragin nabarmena du; izan ere, ekarpen finkatuko planen % 50ean nahitaezkoa da metatutako zenbateko osoa edo haren zati bat biziarteko errenta bihurtzea, eta kasuen % 35ean errenta geroratuak onartzen dira. Hala ere, espero izatekoa da Erresuma Batuan duela gutxi egindako lege-aldaketak lagundu egingo duela kapitalaren aukerak gora egiten, aldaketa horrek ezabatu egiten baitu 75 urtetik aurrera biziarteko errentak nahitaez izan beharra.*

Biziarteko errenta gisa kobratzen dutenen artean, gehienek (% 54) gutxieneko interes bermatua duten errentak aukeratu zituzten; horietatik % 75ean etekinen partaidetza dute, eta gainerakoetan, funtsetako inbertsioari lotutako emaitzak. Errenta bermatuak % 28 dira; % 70, finkoak, eta % 30, errebalorizagarriak. Bermatu gabeko errentak, inbertsio-funtsei guztiz lotutakoak, guztien % 18 dira. Onuradun gehienek (% 57), geroratuen orde, berehalako errentak aukeratzen dituzte.

3.2.2 Espainia

Espainian, pentsio-planen prestazioetan honako aukera hauek daude:

- a) Kapital gisako prestazioak: ordainketa bakarra jasotzen da.
- b) Errenta gisako prestazioak (aldi baterakoa edo biziartekoa).
- c) Prestazio mistoak, era guztietako errentak kapital gisako kobrantzarekin konbinatuta.
- d) Aurrekoen bestelako prestazioak, aldizkakotasun erregularrik gabeko ordainketa gisa.

3.3 taulan enpleguko pentsio-planetan 2021ean ordaindutako prestazioen banaketa dago, ordaintzeko moduaren arabera.

² Inkestak ekarpen finkatuko 41 pentsio-sistema hartzen ditu barne Europako 20 herrialdeetan; guztira 66 milioi pertsona eta 1,5 bilioi euro aktiboetan.

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.3 taula. Enplegu-prestazioen banaketa ehunekotan, Estatuan ordaintzeko moduaren arabera. 2021

Kontingentziak	Kapitala	Errenta	Mistoa	Bestelakoak (*)	Guztira
Erretiroa	41,93	42,48	10,81	4,78	81,17
Ezgaitasuna	21,44	60,53	7,70	10,33	6,78
Heriotza:	27,45	64,00	4,17	4,38	12,05
- Alarguntza:	20,27	73,49	3,69	2,56	6,80
- Zurztasuna:	59,34	26,01	5,08	9,56	1,29
- Beste jaraunsle batzuk:*	29,39	60,07	4,71	5,83	3,96
Mendekotasuna	0	0	0	0	0
Kontingentziak, guztira	38,80	46,29	9,80	5,11	100,00

* Aurrekoiez bestelako prestazioak, aldizkakotasun erregularrik gabeko ordainketa gisa.

Iturria: Ekonomia eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.

3.3 taula horretan egiaztatzen da 2021ean prestazioen % 46,3 errenta gisa kobratu zituztela, baina aldeak daude dagokien kontingentzia zein den. Hala, errenta gisa kobratu dute % 42,5ek erretiro-prestazioetan, % 60,5ek ezgaitasun-prestazioetan eta % 64k heriotza-prestazioetan. Bigarrenik, prestazioa kobratzeko moduetan, kapital gisa da ohikoena ondoren, prestazioengatik jasotako zenbateko guztien % 38,8 hari baitagozkie. Hirugarrenik, prestazioak kobratzeko modu mistoa aukeratzen dute % 9,8k.

3.4 taulan enplegu pentsio-planetakoa kobrantza-moduen bilakaera dago ikusgai; hori horrela, kapital gisa kobratutakoen nolabaiteko beherakada dago gainerako aukeren alde.

3.4 taula. Enplegu pentsio-planetakoa kobrantza-moduen bilakaera estatuan (%)


Kobratzeko moduak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kapitala	39,7	43,3	43,8	39,3	42,7	40,8	40,5	38,8
Errenta	43,8	38,5	32,4	34,5	31,5	44,1	45,3	46,3
Mistoa	15,7	17,1	22,1	24,3	23,9	10,6	9,4	9,8
Beste batzuk	0,8	1,1	1,7	1,9	1,9	4,6	4,7	5,1

Iturria: Ekonomia eta Enpresei Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.

Arretagunea prestazioen banaketan jarri ordeztan jartzen bada, hurrengo grafikoan dauden emaitzak lortzen dira. % 54k errenta gisa kobratzen dute, % 30ek kapital gisa, ia % 10ek formula mistoa aukeratu zuten eta gainerako % 6ek beste modu bat hautatu zuten kobratzeko.

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.1 grafikoa. Enpleguko pentsio-planen onuradunen banaketa ehunekotan, prestazioak kobratzeko moduaren arabera. Estatu. 2021



Iturria: Ekonomia eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: *Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.*

Pentsio pertsonalei dagokienez, 2021ean kobratutako prestazioen erdiak baino gehiago kapital gisa kobratu dituzte (ordaindutako zenbateko osoaren % 56). Errenta gisa izan zen prestazioa kobratzeko bigarren modurik ohikoena, prestazioengatik jasotako zenbateko guztien % 33 era horretan kobratu baitzituzten. Modu mistoan kobratutako prestazioak ia % 6 izan ziren.

3.5 taula. Ordaindutako prestazio pertsonalen banaketa ehunekotan, ordaintzeko moduaren arabera. Estatu. 2021

Kontingentziak	Kapitala	Errenta	Mistoa	Bestelakoak (*)	Guztira
Erretiroa	53,81	34,38	6,21	5,61	100
Ezgaitasuna	57,61	28,92	3,73	9,74	100
Heriotza:	75,83	13,35	3,08	7,75	100
- Alarguntza:	74,3	17,02	3,13	5,55	100
- Zurztasuna:	84,75	9,39	3,02	2,85	100
- Beste jaraunsle batzuk:*	67,52	14	3,09	15,4	100
Mendekotasuna	45,66	35,72	1,14	17,48	100
Kontingentziak, guztira	55,97	33,23	5,81	5,99	100

* Aurreko ez bestelako prestazioak, aldizkakotasun erregularrik gabeko ordainketa gisa.

Iturria: Ekonomia eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: *Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.*

Pentsio pertsonalen planetan kobratzeko moduek izan duten bilakaera aztertuz gero, zera ikusiko dugu: kapital gisa kobratzea oraindik ere nagusi bada ere, gero eta handiagoa da errenta gisa kobratzeko joera (2021eko balioa aztertutako seriearen ehuneko handiena da).

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak


3.6 taula. Estatuko pentsio pertsonalen planetako kobratzeko moduen bilakaera. 2014-2021

Kobratzeko moduak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kapitala	% 52,5	% 52,4	% 54,6	% 54,8	% 57,4	% 51,7	% 58,7	% 56,0
Errenta	% 22,6	% 20,8	% 20,5	% 19,5	% 18,5	% 23,0	% 29,8	% 33,2
Mistoa	% 24,0	% 25,6	% 23,8	% 23,1	% 21,4	% 20,8	% 6,6	% 5,8
Beste batzuk	% 0,9	% 1,2	% 1,1	% 2,5	% 2,7	% 4,5	% 5,0	% 6,0

Iturria: Ekonomia eta Enpresei Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: *Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.*

Pentsio pertsonalak kobratzeko moduaren arabera pertsona pasiboen banaketari begiratzen badiogu, errentaren aukerak kolektiboaren % 69 hartzen du barnean, eta kapitalak, berriz, % 24.

3.2 grafikoa. Pentsio-plan pertsonalen onuradunen banaketa ehunekotan, prestazioak kobratzeko moduaren arabera. Estatu. 2021



Iturria: Ekonomia eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: *Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.*

3.7 taula. Pentsio-plan pertsonalen prestazioen onuradunen banakapena ehunekotan, ordaintzeko moduaren arabera. Estatu. 2021

Kontingentzia	Kapitala	Errenta	Mistoa	Beste batzuk	GUZTIRA
Erretiroa	% 18,3	% 64,6	% 2,5	% 3,1	% 88,5
Baliaezintasuna	% 2,1	% 2,3	% 0,1	% 0,4	% 4,9
Heriotza:	% 3,9	% 2,0	% 0,1	% 0,5	% 6,5
Alarguntza	% 1,0	% 0,7	% 0,0	% 0,1	% 1,9
Zurztasuna	% 1,8	% 0,4	% 0,0	% 0,1	% 2,3
Beste jaraunsle batzuk	% 1,2	% 0,9	% 0,0	% 0,4	% 2,4
Mendekotasuna	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Kontingentziak, guztira	% 24,3	% 68,9	% 2,7	% 4,0	% 100,0

Iturria: Ekonomia eta Enpresei Laguntzeko Estatu Idazkaritza eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia: *Aseguruak eta Pentsio Funtsak, 2020-2021 txostena.*


3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.2.3 EAE

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Politikako Zuzendaritzak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren 2021eko txostenak erakusten duenez, aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztiak ordaindutako prestazioen zenbateko osoaren % 44 errenta aktuarial gisa kobratu dute, % 12 finantza-errenta gisa eta % 41 kapital gisa. Hiru modu horietan kobratu dute prestazioen zenbateko osoaren % 96. Gainerako % 4a beste modu batzuetan kobratu da, modu mistoan, esaterako. Kapital gisa kobratzeko moduak prestazioak kobratzeko modu nagusi izateari utzi dio lehen aldiz. Nolanahi ere, jasotakoaren ia erdia kapital-forman jaso da (% 41), nahiz eta erakunde horien sozietate-helburua Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar beste zenbatekoz osatzea izan.


Prestazioen onuradunei begiratu gero, ikusten da % 55ek pentsioa errenta aktuarial gisa kobratzen dutela, % 25ek finantza-errenta gisa eta gainerako % 20ek kapital gisa.

3.3 grafikoa. Ordaindutako prestazioen zenbatekoaren banaketa, pentsioa kobratzeko moduaren arabera. 2021



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarriaren txostena, Finantza Politikako Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

Grafikoa 3.4 Ordaindutako prestazioen eta bazkide pasiboan banaketa, pentsioa kobratzeko moduaren arabera. 2021



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarriaren txostena, Finantza Politikako Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

3.8 taula. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen prestazioak kobratzeko modua. 2021

Planak dituzten BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	31.693	275.308.894	8.687	724
Finantza-errenta	14.326	73.007.959	5.096	425
Kapitala	11.596	256.696.572	22.137	-
Guztira	57.615	605.013.424	-	-

Iturria: *Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarriaren txostena*, Finantza Politikako Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

3.9 taula. Enpleguko BGAEen prestazioak kobratzeko modua. 2021

Enpleguko BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	28.608	272.636.915	9.530	794
Finantza-errenta	4.825	36.908.367	7.649	637
Kapitala	5.698	120.466.193	21.142	-
Guztira	39.131	430.011.476	-	-

Iturria: *Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarriaren txostena*, Finantza Politikako Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

3.10 taula. Banakako BGAEen prestazioak kobratzeko modua. 2021

Banakako BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	3.085	2.671.978	866	72
Finantza-errenta	9.491	36.023.320	3.796	316
Kapitala	8.558	136.031.311	15.895	-
Guztira	21.134	174.726.609	-	-

Iturria: *Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarriaren txostena*, Finantza Politikako Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

Dena den, enpleguko BGAEen agregatua kontuan hartuta eta arretagunea prestazioak kobratzeko moduan –errenta aktuarial, finantza-errenta eta kapital gisa bakarrik– jarriz gero, BGAEek ordaindutako prestazioen zenbateko osoaren % 61 errenta aktuarial gisa kobratu dute, eta % 8, finantza-errenta gisa. Alegia, prestazioen zenbateko osoaren % 69 errenta gisa kobratu da, eta % 27, berriz, kapital gisa. Hiru modu horietan kobratu da prestazioen zenbateko osoaren % 96. Gainerako % 4a beste modu batzuetan kobratu da, modu mistoan, esaterako. Ikusten denez, enpleguko BGAEen kasuan, kobratzeko modu nagusia errenta aktuariala da (kasuen erdiak baino gehiago). Kontuan hartzen badugu, halaber, finantza-errenta gisa kobratutakoa, prestazioen zenbateko osoaren bi heren errenta moduan jasotzen dira, eta hori bat dator BGAEen helburu sozialarekin.

3. Europako herrialdeetan pentsioak kobratzeko aukerak

Enplegu-sistemetako bazkide pasiboek kobratzeko moduaren arabera duten banaketari dagokionez, ia bi herenek (% 73) errenta aktuarial gisa kobratzen dute; % 15ek, kapital gisa, eta gainerakoek finantza-errenta gisa kobratzen dute (% 12).

Banakako BGAEei dagokienez, ordaindutako zenbatekoaren % 75 kapital gisa kobratu dute; % 20, finantza-errenta gisa; eta % 1, errenta aktuarial gisa. Hortaz, % 21 jaso da errenta gisa. Hiru modu horietan kobratu da prestazioen zenbateko osoaren % 96. Gainerako % 4a beste modu batzuetan kobratu da, modu mistoan, esaterako. Bilakaerari begiratuta, berriz, azken hiru ekitaldietan egiaztatu da banakako BGAEetako bazkideak prestazioa errenta aktuarial gisa kobratzea eskatzen hasi direla pixkanaka. Hain zuzen ere, errenta aktuarial gisa jasotako batez besteko hileko zenbatekoa, gutxi gorabehera, ezkontidea kargura ez izanda Gizarte Segurantzak 2021ean ematen duen erretiro-pentsioaren gutxieneko zenbatekoaren % 10ekoa da.

Banakako sistemetako bazkide pasiboek kobratzeko moduaren arabera duten banaketak erakusten du, bestalde, finantza-errentak pertsonen % 45 biltzen dituela; kapitalaren formulak, % 40, eta errenta aktuarialak gainerako % 15a hartzen duela.

4.

HIRU HERRIALDEREN AZTERKETA XEHATUA: ERRESUMA BATUA, ALEMANIA ETA HERBEHEREAK

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

4.1 GAIA ZERTAN DEN

Hurrengo taulan bigarren zutabearen oinarritzko ezaugarriak ageri dira aztertutako hiru herrialdeei dagokienez.

4.1 taula. Bigarren Oinarriaren xehetasuna aztertutako hiru herrialdeetan

Herrialdea	II. oinarria
Erresuma Batua	<p><i>Trantsizioan, erreforma handiak 2013-2018 aldian</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pentsioak lantokian ▪ Enpresaburuek gutxieneko arau batzuk bete beharreko plana eman behar dute ▪ Afiliazio automatikoa, baina langileak aukera dezake horri ez atxikitzea ▪ Langileen eta enpresaburuen kotizazioen eta Estatuaren zerga-arintzeen bidez finantzatzen da ▪ Finantzatu gabeko araubideak: onartu gabe eta funts korporatiboekin finantzatuak, batez ere exekutiboentzat ▪ Lantokian dauden pentsioak fideikomisoetan (PF, EF, hibridoak) eta kontratu kolektiboetan (EF) oinarritutako planen nahasketa dira ▪ PFko plan asko itxita daude afiliatu berrientzat. Plan irekiak EFkoak dira gehienbat
Alemania	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresak borondatezko pentsio-plan osagarri bat eskaini diezaieke langileei ▪ Azken diru-sarreraren % 15 inguruko ordezkapen-tasa bermatzen du ▪ 5 pentsio-tresna korporatibo (2011): <ul style="list-style-type: none"> - Zuzeneko konpromisoa liburu-erreserben bidez (guztizkoaren % 52) - Inbertsio-murrizketarik gabeko laguntza-funtsak (guztizkoaren % 7) - Zuzeneko aseguruua: aseguruetan oinarritutako tresna, inbertsio-arau zorrotzak dituena (guztizkoaren % 11) - <i>Pensionskasse</i>: azpifinantzaketa onartzen ez duen aseguru batean oinarritutako tresna (guztizkoaren % 24) - Pentsio-funtsak, % 10eko azpifinantzaketa baimenduta (guztizkoaren % 5) ▪ Planak prestazio finkatukoak (PF) dira gehienbat, baina batzuk hibridoak dira; ez dago ekarpen finkatuko (EF) garbirik ▪ Langileek desmetatzeko bi aukera izaten dituzte: biziarteko errenta edo ordainketa bakarra.
Herbehereak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ia nahitaezkoa: hitzarmen kolektiboek jarraikiz, sektoreko pentsio-funtsak dituzte langile gehienek ▪ Azken diru-sarreraren % 45eko ordezkapen-tasa bermatzen du ▪ Enplegatzaileen plan espezifikoak enpresaren pentsio-funts bat, aseguru-plan bat edo enpleguko pentsio-funts bat dira (EFko planak bakarrik) ▪ Enplegu-planen ia % 90 PFkoak dira, baina EFko planak eta plan hibridoak gero eta gehiago dira ▪ Enplegatzaileen eta langileen ekarpen-mailak negoziazio kolektiboaren bidez zehazten dira; enplegatzaileen zatia, oro har, ekarpenen % 60 da

Iturria: Europako Batzordea, *Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries*, 2016

Aztertutako hiru herrialdeetan desmetatzeko dauden produktu ohikoenak ageri dira ondorengo taulan. Errenta gisa kobratzea baimentzen denean, biziarteko errentaren formula da ohikoenetako bat.

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

4.2 taula. Desmetatze-produktu ohikoenak

Herraldea	Errenta gisa kobratzeko formula ohikoenak	Errenta gisa ez beste modu batean kobratzeko formula ohikoenak
Erresuma Batua	<ul style="list-style-type: none"> Biziarteko errenta Errenta bermatua Errenta hobetua 	<ul style="list-style-type: none"> Kapitala Funtsak ateratzea
Alemania	<ul style="list-style-type: none"> Errenta bermatua Biziarteko errenta Errenta geroratua 	<ul style="list-style-type: none"> Kapitala Funtsak ateratzea
Herbehereak	<ul style="list-style-type: none"> Biziarteko errenta 	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago eskuragarri

Iturria: Europako Batzardea, *Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries*, 2016

4.1.1 Erresuma Batua

Erresuma Batuan, pentsioen erreformek bultzatu egin dute erretirodunek biziarteko errentako produktuen ordezkotik aukerak har ditzaten. Gaur egun, pentsio-eskubideak desmetatzeko produktu ugari dago aukeran.

Desmetatzeari buruzko txostenetan eskuragarri dauden datuek erakusten dutenez, biziarteko errenta gisa kobratzeak garrantzia galdu du pentsioen bi erreforma hauek indarrean jarri zirenez geroztik: 2014koa (gutxieneko diru-sarreraren baldintzak murriztea, pentsioa kobratzean biziarteko errentez bestelako formula batzuk erabili ahal izateko) eta 2015ekoa (*Pension Freedoms*), zeinak are malgutasun handiagoa ekarri zuen, gutxieneko diru-sarreraren baldintza ezabatu baitzuen. Hori horrela, erretirodunek beren ondarea nahi bezala erabil dezakete 55 urtetik aurrera.


Hain zuzen ere, 2014ko erreformaren aurretik, erretirodunek beren pentsioaren % 25 kapital gisa atera ahal zuten zergarik ordaindu gabe, baina baldintza hau bete behar zuten: urtean gutxienez 20.000 libera esterlinako diru-sarrerak biziarteko errentako produktuetara bideratzea. 2014ko erreformak 12.000 liberara murriztu zuen gutxieneko diru-sarrera horien baldintza. 2015eko erreformak ezabatu egin zuen gutxieneko diru-sarreraren baldintza. 55 urtetik aurrera, erretirodunek nahi duten moduan erabil dezakete beren ondarea.

Garrantzitsua da adieraztea, orobat, batez besteko pentsio-plan bati atxikitako pertsonen aldean, pentsio-plan txikiagoi atxikitako pertsonen biziarteko errenta gutxiago eta kapital gisako kobrantza gehiago eskatzen dituztela.

Hala ere, erreforma egin eta berehalako aldi biziarteko errenten eskarian eragin handia edo beherakada drastikoa eta kapital-kobrantzen gorakada ikusi ondoren, biziarteko errenten eskariak gora egiteko joera erakutsi zuen (2015eko laugarren hiruhilekotik aurrera).

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

4.1 grafikoa. Biziarteko errenten eta arriskua murrizteko produktuen salmenta eta bolumena. Erresuma Batua (2009-2015)



Iturria: Europako Batzordea, *Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries*, 2016

4.1.2 Alemania

Metatzeko aldiari hautatutako pentsio-plan motaren araberaok dira aurrezkiak desmetatzeko aukerak. Pentsiorako aurrezkiak metatzeko aukera hauek daude:

1. *Riester* pentsioak: 2002an gehitu zituzten *Riester* pentsio-planek aukera ematen dute erretiroaren unean gehienez ondarearen % 30 kapital gisa kobratzeko, eta zorra murrizteko produktu bat edo biziarteko errenta bat eskuratzeko erabil daitezke gainerakoa.
2. *Rürup* pentsioak: 2005ean gehitu zituzten *Rürup* pentsio-planak edonork eskura ditzake, baina langile autonomoentzat ziren hasiera batean. Metatutako ondarea errenta gisa baino ezin da kobratu.
3. Pentsio-aseguruko kontratuak dira, eta biziarteko errentak, kapital gisako kobrantza edo arian-arian murrizteko produktuak onartzen dituzte. Kasu honetan kapital gisa kobratzea da formularik ohikoena (% 90 inguru).

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

4.1.3 Herbehereak

Langileen % 89k edo prestazio finkatuko sistema dute; gainerakoek ekarpen finkatuko sistema bat.

Biziarteko errenta gisa kobratzea nahitaezkoa da pentsio-planetan. Kapital gisa kobratzea metatutako ondareak pentsio oso txikiak dakartzanean baino ezin da erabili (hau da, 2019an enplegu-planetan 484,09 eurotik beherako biziarteko errenta ematen badute urtean); ordainketa horiek diru-sarrera gisa zergapetzen dira. Ezin da bestelako kobrantzarik egin. Banakako planetan, kapital gisako kobrantza ezin da 4.404 euro baino handiagoa izan (2019an, KPIarekin eguneratuta).

Herbehereetako biziarteko errentako produktuek ez dute kapitala onuradunei transferitzea baimentzen titularra hil ondoren.

4.2 PENTSIODUNEK KOBRATZEKO MODUAREN HAUTAKETAN ERAGINA ZER FAKTOREK DUTEN

Kontsumitzaileek aurrezkiak desmetatzeko garaian hartzen dituzten erabakietan haien lehentasunek dute eragina, baina baita beste faktore batzuek ere, hala nola araudiak edo merkatuaren egiturak (hornitzaileen eta tarifen lehia) edo finantza-informazioaren eta aholkularitzaren gaiak.

Informazioari dagokionez, pentsiodunen erabakietan eragina duten oztopo nagusien artean daude informazioaren konplexutasuna eta aurreztaileen finantza-ezagutzarik eza. Bi alderdi horiek aztertutako hiru herrialdeetan (Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak) ageri dira. Herrialde horietan arazo nagusiak ezagutzeko egindako inkestari esker honako arazo hauek identifikatu ahal izan ziren:

- Pentsioen egoeraren konplexutasuna (askotariko produktuak eta epe luzerako izaera direla eta).
- Aurreztaileek norberaren egoera ulertzeko zer gaitasun duen.
- Epe luzera aurrezteko konpromisorik eza.
- Gaur egungo giro ekonomikoaren ziurgabetasuna.
- Produktu-hornitzaile moten dibertsitaterik eza.

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

4.3 taula. Informazioarekin lotutako oztopo nagusiak identifikatzea

Oztopoak	Erresuma Batua	Alemania	Herbehereak
Informazioa ez dago eskuragarri	●	●	●
Informazioaren konplexutasuna	●	●	●
Finantza-ezagutzarik eza	●	●	●
Onlineko konparazio-tresnak eraginkorrak ez izatea	●	●	●

Iturria: Europako Batzordea, *Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries*, 2016. Galdetutako agenteen erantzunak (onlineko kontsulta).

Oharra: baiezko erantzunen ehunekoa: berdea (% 50ek baino gutxiagok diote oztopoa dagoela), horia (% 50-75ek diote oztopoa dagoela) eta gorria (% 75ek baino gehiagok diote oztopoa dagoela).

4.2.1 Informazioaren eskuragarritasuna

Desmetatzeko faserako *informazio-betekizunak* desberdinak dira herrialdeen artean, baina gehienetan nolabaiteko informazio komuna zabaltzen dute. Horrek barne hartzen ditu urteko kontuaren egoera-orriak eta prestazio moten eta ordaintzeko aukeren deskribapenak.

Herbehereetan, pentsio-funtsek erretiro-pentsioari buruzko informazioa eman behar dute, bai eta indexazioari buruzko informazioa eta ordaindutako pentsioen urteko laburpena ere.

Erresuma Batuan, afiliatuei erretiroa hartzeko eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago nahitaez bidali behar zaie informazio-pakete bat. Honako hau da zabaldu behar den nahitaezko informazioa:

- Afiliatuek biziarteko errenta hautatzeko aukera dutela eta horren hornitzailea zein den.
- Dauden biziarteko errenten azalpena, hala nola bermedun edo bermerik gabeko errentak, errenta orekatuak, biziarteko errenta bakunak edo bateratuak (ezaugarrien deskribapena, ordainketa-tasa).
- Bezeroen beharretara ongien egokitzen diren biziarteko errentei buruzko aholkularitza.

Alemanian, biziarteko errentako produktuen errentagarritasunaren murrizketaren berri ematea eztabaidatzen ari dira (komisioen ondorioz biziarteko errenta-tasak murriztea).

Informazio-betekizunaz gain, kontsumitzaileek desmetatzeko faseari buruzko *hainbat informazio-iturri ere badituzte eskuragarri*.

Herbehereetan, erakunde askok eskaintzen dute desmetatze-aukerei buruzko informazioa beren webguneetan.

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

Erresuma Batuan ere tresna askok aukera ematen diete kontsumitzaileei merkatuko biziarteko errenta mota onenak hautatzeko. Adibidez, gobernuak finantza-hezkuntzari buruzko webgune bat eskaintzen du, merkatuan aktibo dauden hornitzaileek eskaintzen dituzten biziarteko errenta motak alderatu ahal izateko (www.moneyadvice.service.org.uk). Alderatzeko tresnez gain, EFko pentsioa duten pertsona guztiek orientazio doakoa eta inpartziala jasotzeko eskubidea dute erretiroa hartutakoan, Pension Wise zerbitzuaren bidez. Gobernuak sortu zuen 2015eko apirilean (www.pensionwise.gov.uk) (ikus eranskineko 2. taula).

Badira, halaber, produktuak alderatzeko zenbait webgune, kontsumitzaileek merkatuan eskaintzen dituzten tarifarik onenak lortu ahal izan ditzaten. Informazioaren, orientazioaren eta malgutasunaren maila aldatu egiten da tresna batetik bestera, eta horietako batzuetan erregistratu beharra ere badago.

Alemanian, alderatzeko tresnek ez dituzte biziarteko errentako produktu guztiak barne hartzen eta ez dute aholkularitzarik ematen. Alderatzeko tresnek emandako informazioa baliteke partziala izatea dena delako tresna hornitzaileena bada.

4.2.2 Informazioaren konplexutasuna eta finantza-ezagutzarik eza

Biziarteko errentak ez dira ulertzen errazak, baita informazioa eskuragarri egonik ere. Azterlan askok nabarmendu dute kontsumitzaileek ez dutela finantza-ezagutzarik, eta horrek zaildu egiten duela desmetatzeko produktuen abantailak eta eragozpenak ulertu ahal izatea; zaila egiten zaie finantza-produktuen arriskua eta ziurgabetasuna ebaluatzea. Aukeren kostu eta gastuei buruzko informazioa ere ez dute ongi ezagutzen aurreztaileek.

Horri buruz egindako hainbat lanek erakusten dute hori dela kontsumitzaileek erabaki informatuak eta zentzudunak hartzea eragozten duten oztopo nagusietako bat. Aitzitik, beste azterlan batzuek finantza-ezagutzek erretiroaren plangintzan duten eragin positiboa erakusten dute (Herbehereak).

4.2.3 Finantza-aholkularitza

Pentsioak kobratzeko produktuak gero eta konplexuagoak direnez aholkularitza inoiz baino beharrezkoagoa da. Aztertutako herrialdeetan, publiko orokorrari zuzendutako bi aholkularitza mota daudela egiaztatu da: alde batetik, aholkularitza independentea, eta, bestetik, orientazio orokorra.

Europako Batzordeak egindako azterlanak gai hauetan jarri du arreta:

- Aholkularitzaren eskuragarri izatea.
- Aholkularitza arautzea.
- Aholkularitza eskuragarri eta jarraituki izatea.

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

- Aholkularitzaren kalitatea (independentzia...).

Emaitzek, ondorengo taulan laburbilduta, herrialde gehienetan, teoriarik, aholkularitza eskuragarri dagoela erakusten dute, baina garestiegia eta partziala dela (hornitzaileek eskaintako produktuei buruzkoa baino ez da), eta ez dagoela haien publikora egokituta (azterlanean elkarrizketatutako pertsonen artean bildutako iritzien arabera).

4.4 taula. Finantza-aholkularitzarekin lotzen diren oztopo nagusiak identifikatzea.

Oztopoak	Erresuma Batua	Alemania	Herbehereak
Aholkularitza eskuragarri ez egotea	●	●	●
Aholkularitza eskuragarri egotea (kostua)	●	●	●
Aholkularitzaren kalitate txarra	●	●	●

Iturria: Europako Batzordea, *Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries*, 2016. Galdetutako agenteen erantzunak (onlineko kontsulta).

Oharra: baiezko erantzunen ehunekoa: berdea (% 50ek baino gutxiagok diote oztopoa dagoela), horia (% 50-75ek diote oztopoa dagoela) eta gorria (% 75ek baino gehiagok diote oztopoa dagoela).

*Aholkularitza eskuragarri egotea*ri dagokionez, ondorengo taulan aztertutako hiru herrialdeetako finantza-aholkulari nagusiak ageri dira.

4.5 taula. Finantza-aholkulari nagusiak herrialdearen arabera

Herrialdea	Finantza-aholkularitza eta -orientazio nagusia
Erresuma Batua	Pentsio-kudeatzaileek (produktuen hornitzaileak izaten dira) eta desmetatzeko produktuen beste hornitzaile batzuek ematen dute finantza-aholkularitza. 2015ean, Gobernuak Pension Wise zerbitzua jarri zuen martxan, ekarpen finkatuko pentsioei buruzko doako orientazio independentea emateko. Dauden aukeren berri ematen dute, baina ez dute produktuei edo hornitzaileei buruzko gomendio espezifikorik egiten.
Alemania	Pentsio-kudeatzaileek, finantza-aholkulari independenteek eta kontsumitzaileen elkarteek (Bund der Versicherten elkarteak, kasu) ematen dute finantza-aholkularitza.
Herbehereak	Pentsio-kudeatzaileak eta gobernu- eta kontsumitzaile-elkarteak dira finantza-aholkulari nagusiak.

Iturria: Europako Batzordea, *Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries*, 2016.

Aholkularitza arautzeari dagokionez, informazio-betekizunek eta gobernuen orientabideek bermatzen dute erretiroa hartzen duten pertsonen beharrezko den informazioa izango dutela erabakiak jakinaren gainean daudela hartu ahal izateko. Hala ere, askotan ez dira gai kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa ebaluatzeko eta iruzurraren aurka babesteko. Izan ere, pentsioekin lotutako gaien gaineko ulermena eta interesa mugatuak dira, oro har. Hori horrela, ematen den informazio kantitatea gorabehera eta informazio hori oso ongi aurkeztuta ere, baliteke nahikoa ez

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

izatea aurreztaileek beren erabakiak optimizatu ditzaten. Horrenbestez, finantza-aholkularitza arautzea funtsezkoa da haiek babesteko. Erregulazio hori zenbait agintari nazionalen erantzukizuna da:

- **Alemanian**, Finantza Gainbegiratzeko Agintaritzak Federalak (BaFin) bankuak eta finantza-zerbitzuen hornitzaileak ikuskatzen ditu, eta finantza-zerbitzuen esparruan aurreztaileak oro har babesteaz arduratzen da.
- **Erresuma Batuan**, Financial Conduct Authority (FCA) finantza-zerbitzuetako enpresen eta finantza-merkatuen zuzendaritza- eta jokabide-erregulatzailea da. FCAren webguneak finantza-aholkulari bat aurkitzeko aholkuak ematen dizkie aurreztaileei. Bereziki, kontsumitzaileek Finantza Zerbitzuen Erregistroan (<https://register.fca.org.uk>) egiaztatu behar dute finantza-aholkularia FCAk eta Zuhurtziazko Erregulazio Agintaritzak (PRA) arautua eta baimendua dagoen. PRAk eta FCAk baimendutako finantza-aholkulariak Financial Services Compensation Schemes-en Financial Ombudsman Service delakoak estaltzen ditu, gatazkak konpontzen laguntzen duen erakundea baita.
- **Herbehereetan**, Finantza Merkatuen Agintaritzak (AFM) arduratzen da finantza-merkatuen funtzionamendua gainbegiratzeko. AFMren webguneak aholkulari kualifikatuak identifikatzen laguntzen die aurreztaileei (AFMren baimena behar dute aholkulari horiek).

Finantza-aholkularitzaren erregulazioa etengabe aldatzen ari da, eta merkatu desberdinetara egokitzen. Erresuma Batuan kasua da horren adibide garbia; izan ere, FCAk (Financial Conduct Authority) zenbait ekimen arautzaile sartu ditu pentsioen arloko malgutasun berriak ekarritako kezkekin lotuta.

- Adibidez, FCAk aurreztailearen babes-maila berri bat iragarri zuen, «babes gehigarria» izenekoa. Arriskuei buruzko banan-banako aholkularitza eman aurretik, hornitzaileek nahitaez galdetu beharko diete aurreztaileei zer inguruabarrak dituzten (osasuna, bizimodua, egoera zibila, etab.), bai eta ea honelako gai hauek ulertzen dituzten ere: fiskalitatea, prestazio publikoetan zer eragina duten eta pentsioen arloko iruzurrak.
- Aurreztaileei pentsioen arloko aholkularitza kobratzeko moduari buruzko araudi berria da bigarren adibide bat. Izan ere, erretiratu berriek orain kuota bat ordainduko dute komisioren ordez aholkularitza emateagatik. Horrela, zehatz-mehatz dakite zer ordaintzen duten, eta jasotzen duten aholkularitzan ez duela eraginik aholkulariak inbertsioaren bidez izango duen irabaziaz. Gainera, orain aholkulariak ordainsariei buruzko informazioa eman behar dio aurreztaileari, aholkularitza onartzeko konpromisoa hartu aurretik. Herbehereetan antzeko sistema dago. 2014an, legeak orduko tarifa bat ezarri zuen, eta hori onuragarria izan da aurreztaileentzat.

Azkenik, dirudienez, mugatua da *finantza-aholkularitzarako sarbidea*. Hori, batez ere, honako arrazoi hauengatik izan daiteke:

- Pentsio-funts txikiak dituzten erretiratu berriek ez dute aholkularitza jasotzeko aukerarik (Erresuma Batuan egindako ikerketek agerian uzten dute hori).
- Finantza-aholkularitzaren kostua handia dela hautematen dute.
- Finantza-aholkularitzaren eskari txikia (ez dute uste behar dutenik; diru-galeratzen hartzen dute; ezin dute ordaindu edo beren dirua azkar nahi dute inolako eragozpenik gabe; edo ezin

4. Hiru herrialderen azterketa xehatua: Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak

dira fidatu jasotzen duten aholkularitzarekin edo haien kalitateari buruzko iritzirik osatu).

Horrez gain, *aholkularitzaren jarraitutasuna* kontuan izan behar da bizi-luzetasunaren arriskuari dagokionez, balitekeelako biziarteko errenten ordainketan eragina izatea. Financial Conduct Authority erakundearen arabera, Erresuma Batuan zenbait estrategia daude, eta hondar bizi-itxaropena kontuan hartuta bizi-errenta aldakorra ordaintzea dago horien artean (adibidez, pentsio-funtsaren 1/20 kontsumitzea *erretiro-datatik* bizi-itxaropena 20 urte bada lehenengo urtean; pentsio-funtsaren 1/19,5 *erretiro-datatik* bizi-itxaropena 19,5 urte bada bigarren urtean, etab.).

5.

PENTSIOAK DESMETATZEKO PRAKTIKEI EDO KOB RATZEKO MODUEI BURUZKO EZTABAIDAK

5. Pentsioak desmetatzeko praktikei edo kobratzeko moduei buruzko eztabaidak

5.1 AZKEN EZTABAIDAK EBn

5.1.1 Kontsumitzailearentzako informazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1286/2014 Erregelamendua txikizkako inbertsioko aurrepaketatutako eta aseguruetan oinarritutako produktuarentzako (PRIIP)³ funtsezko informazio-dokumentuei buruzkoa da. Erregelamenduaren helburua zera da: kontsumitzaileei laguntzea aseguruetan oinarritutako inbertsio-produktuen funtsezko ezaugarriak hobeto ulertzen eta alderatzen. FCAREN ustez, biziarteko errentetan ordaindu beharreko zenbatekoak erreferentziako balioen arabera (indizeak, esaterako) edo errentariak zuzenean eskuratzen ez dituzten aktibo baten edo batzuen errendimenduaren arabera (adibidez, errenta aldakorrak) badira, errenta horiek PRIIPtzat hartu behar dira. Erregelamenduak funtsezko informazioko dokumentu bat egitea eskatzen du, informazio-elementu batzuk barne hartuta, hala nola:

- Zein da produktua?
- Zein dira arriskuak eta zer lortuko dute aurreztaileek/kontsumitzaileek trukean?
- Zein da kostuak?

5.1.2 Desmetatzeko produktu berriak diseinatzea

Aseguru-produktu baten bizi-zikloan bezeroen interesak babestea eztabaidatzen ari dira Europan. Aseguru-enpresek eta aseguru-banatzzaileek produktuak gainbegiratzeko eta gobernatzeko hartutako akordioei buruzko kontsulta-dokumentu bat argitaratu berri du EIOPAK. Aseguruen banaketari buruzko zuzentarauan daude ezarrita produktuen gainbegiratzeko eta gobernantza-betekizunak. EBko estatu kideek 2018ko otsaila baino lehen gehitu behar zuten zuzentzarau hori beren legerian. Besteak beste, honako hau jorratzen dute: xede-merkatuaren interesaren, helburuen eta ezaugarrien arabera produktuak diseinatzea. Aseguru-enpresek produktu bat bezeroen interesekin bat datorren ebaluatzeko, eskura dagoen informazio-maila ez ezik, bezeroek zer gaitasun-maila eta finantza-ezagutza duten ere hartu behar dute kontuan. Inkestak egin ahal izango dituzte xede-bezeroek produktuaren ezaugarriak ulertzen dituzten jakiteko.

³ Packaged retail and insurance-based investment products (PRIIP)

5. Pentsioak desmetatzeko praktikei edo kobratzeko moduei buruzko eztabaidak

5.2 PENTISIOAK DESMETATZEKO PRAKTIKEI EDO KOBRATZEKO MODUEI BURUZKO ERREFORMA ETA EZTABAIDA NAZIONALAK

Europar Batasunaren diren eztabaidez gain, jarraian Erresuma Batuan, Herbehereetan eta Alemanian egindako zenbait erreforma laburbildu dira, zeinek eragina baitute edo etorkizunean izango baitute desmetatzeko merkatuan edo kobratzeko moduetan.

5.2.1 Erresuma Batua

Azken urteotan egindako zenbait erreformak eragina izan dute desmetatzeko prozesuetan, desmetatzeko aukerei dagokienez malgutasun handiagoa eskaini baitzaie aurreztaileei. 2015eko apirilko erreformaren aurretik, pertsona gehienek biziarteko errenta jasotzen zuten, zerga-legeriaren betekizunen ondorioz. Hauek ziren biziarteko errenten ordezkoko aukerak:

- Kapital gisako kobrantzak pentsio-planetako aurreztaile txikientzat (2.000 libera)
- Programatutako diru-ateratzeak; horietan, mugatua zegoen aurreztaileek atera zezaketen zenbatekoa (gutxienez 20.000 liberako diru-sarrera bermatzen zien pentsioaren beste diru-iturri bat zutenentzat izan ezik).

2014an, lehen erreforma bat egin zen, eta horri esker 10.000 libera handitu zen kapital gisa kobratu ahal zen zenbatekoa, eta murriztu egin zuen, orobat, programatutako diru-ateratzearen aukerari heltzeko behar zen gutxieneko zenbatekoa (12.000 liberara).

2015eko apiriletik aurrera, aurreztaileek malgutasun handiagoa dute erretiroa hartzeko unean hautatzeko. Aukera hauek dituzte:

- Biziarteko errenta bat eskuratzea, lehen biziarteko errentei aplikatzen zitzaizkien murrizketarik gabe. Erreforma egin aurretik, biziarteko errenta gisa ordaindu ahal izateko, baldintza jakin batzuk bete behar zituen EFko araubideak. Erreformaren ondotik: [...] *oraindik ere aseguru-etxe batek ordaindu behar du biziarteko errenta, baina baliteke errenta murriztea eta afiliatua hil ondoren ere ordaintzen jarraitzea, baldin eta errenta-kontratuan zehaztutako iraupena duen berme-aldia amaitu baino lehen hiltzen bada afiliatua. Gainera, afiliatua jada ez dago baimendu gabeko ordainketen karguen menpe, biziarteko errenta ordaintzen duen aseguru-etxea aukeratzeko aukerarik izan ez badu.*
- Pentsio-plan bat(i) atxikitzea/eskuratzea
- Sarbide malguko programatutako diru-ateratzea aukeratzea
- Uncrystallised Funds Pension Lump Sum (UFPLS) aukera hartzea; hau da, kapital gisako ordainketa batzuk, zeinetan kobratutako zenbateko bakoitzaren % 25 zergarik gabe dagoen.

Erreforma horrek pentsioen merkatuan berrikuntza eta lehia sustatzea espero da, bai eta produktu eta aukera berriak sortzea ere. HMTren *Freedom and choice in pensions* txostenaren arabera, *horren ondorioz erretiro-errenten merkatuan berrikuntza eta lehia berria sustatzea espero du*

5. Pentsioak desmetatzeko praktikei edo kobratzeko moduei buruzko eztabaidak

gobernuak; hau da, hornitzaileek produktu berriak sortzea aurreztaileen banakako beharrak asetzeko eta gizarte-erronka berriei aurre egiteko (mendekotasuna duten pertsonen zainketak finantzatzea, kasu) [...]. Merkatua zabalduko du, halaber, dauden produktuen garapen handiagoa ahalbidetzeko; biziarteko errenta geroratuak, adibidez.

Informazioarekin lotutako beste erreforma batzuk ere aurreikusten dira, hala nola pentsioen aginte-taula bat sortzea, aurreztaileek pentsio publiko, profesional eta pertsonaletatik datozen erretiroagatiko diru-sarrera guztien laburpena izan dezaten.

Gainera, biziarteko errenten bigarren mailako merkatu baten inguruko eztabaidarik ere badago: biziarteko errenta eskuratu duten aurreztaileek ez dute gaur egun akordio horretatik ateratzeko aukerarik. Biziarteko errenta jasotzen dutenei errenta hori hirugarren bati saltzeko aukera ematea da helburua.

5.2.2 Alemania

Alemanian, 17b ekarpen finkatuko pentsio-plan sektorialak sortzea dute eztabaidagai (gizarte-solaskidearen eredu ere esaten zaio). Pasiboa ez litzateke jada enplegatzailearen erantzukizuna izango, pentsio-tresna sektorialaren erantzukizuna baizik. Alemaniako sindikaturik handienak (IG Metall) babesa agertu berri die gobernuaren pentsio-plan sektorialetarako proposamenei.

Zabalik dago, halaber, afiliazio automatikoa erabiltzeari buruzko eztabaida, pentsioen estaldura hobetzeko eta borondatezko pentsio-plan pribatuak erakargarriagoak izan daitezen. Metallrente-k 17 eta 27 urte bitarteko pertsonen artean egindako inkesta baten arabera, inkestatuen % 65 ados daude afiliazio automatiko horrekin.

5.2.3 Herbehereak

Inbertsioek errendimendu apala dakarte; hori horrela, Herbehereetako pentsio-funtsak ekarpen finkatuko araubide gisa funtzionatzen hasi dira. Hortaz, errekerperazio-ekarpenak ezarri dituzte, eta prestazioen indexazioa murriztu dute. Izan ere, Herbehereetako pentsio-funtsek % 105eko gutxieneko estaldura-ratioa izan behar dute (aktiboen eta obligazioen arteko erlazioa), Finantza Ebaluaziorako Esparru berrikusiaren arabera (nFTK). Ratio hori betetzen ez bada, pentsio-funtsek errekerperazio-plan bat aurkeztu behar dute.

Herbehereetan, balizko erreformek pentsio-planen diseinua pertsonalizatzea izango dute ardatz. 2015eko uztailean, ekarpen finkatuko pentsioen nahitaezko banakako planen proposamena bidali zuten Parlamentura. Pentsio-plan horiek –arisku partekatuko pentsio pertsonalak (EAP) izenekoek– ezaugarri hauek dituzte:

5. Pentsioak desmetatzeko praktikei edo kobratzeko moduei buruzko eztabaidak

- Metatutako aktibo pertsonalen nahitaezko urtekotzea; ondorioz, kontsumitzaileek ezin dute hautatu bizi-luzetasunaren arriskuari aurre ez egitea.
- Aseguru osagarri bat sinatzea, bizi-luzetasunaren eta inbertsioaren arriskuak estaltzeko segur aski; oraindik zehazteke dagoen neurri batean.

Berriki egindako legeriak biziarteko errenta aldakorrak gehitu ditu ekarpen finkatuko planetara. Biziarteko errenta berri horiei esker, aurreztaileek erretiroko diru-sarrera handiagoak izango dituzte biziarteko errenta tradizionalarekin baino, baina diru-sarrera txikiagoak izateko arriskua ere izango dute. Produktu horien konplexutasuna dela eta, komunikazio-baldintza berriak erantsiko dira. Baldintza horiek honako hauei dagozkie: erretiroa hartzeko unean biziarteko errentari zer maila aurreikusten zaion, eta erretiroa hartu eta 10 urterako biziarteko errenta-mailen proiektzioa, hiru egoera desberdin aintzat hartuta. Kontsumitzaileek prestazioak metatuta badituzte ekarpen finkatuko plan batean hornitzailea aukeratu ahal izango dute (hau da, aseguru-etxeak, pentsio-funtsak eta gizarte-aurreikuspeneko erakundeak).

2019ko pentsioei buruzko akordioa aplikatzeko egindako lege-proiektu berriari dagokionez (*Wetsvoorstel bedrag ineens, RVU en verlofsparen*), 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jartzea aurreikusten da. Pentsio-planek lau urteko epea izango dute horretara egokitzeko.

Lege-proiektu horrek pentsioei dagokienez lortutako hiru akordio garatzen ditu:

- Aukera-askatasun handiagoa pentsioa kobratzean (kapital gisa kobratzea)
- Erretiro aurreraturako aukera gehiago (erretiro aurreratuagatiko kotizazioa malgutzea; *RVU-heffing*)
- Oporrak aurrezteagatiko zerga-arintzeari heltzeko aukera handiagoak, erretiro aurreratuaren ondorioetarako

Aldaketek nabarmen handituko dute langileek pentsioen arloan duten aukeratzeko askatasuna (inbertsio-estrategiari dagokionez, eta, potentzialki, baita ekarpen-mailari dagokionez ere). Erretiroa hartzean, aukeran izango dute biziarteko errenta aldakorrak eta finkoak hartzea; horrez gain, erretiro-pentsioaren balioaren % 10 kobratu ahal izango dute gehienez, ordainketa bakar edo kapital gisa, pentsioa hasten den egunean, edo legezko erretiro-adina betetzen duten urtearen hurrengo otsailean. Aukeratzeko askatasun handiago hori dela eta, enpresaburuek erabaki beharko dute zer eginkizun eta erantzukizuna duten beren langileek aukeratutakoa babesteko orduan.

Erretiro-pentsioa hasi aurretik hartu behar da kapital partzialean kobratzeko eskubidea erabiltzeko aukera, bai eta hori egiteko eskubidea pentsioa kudeatzen duenari egin. Aukeratzeko eskubide hori ezin dute murriztu, adibidez, pentsioaren administratzaileak, enpresaburuen eta langileen erakundeek edo ordezkari-organoez. Aukera-eskubideak baldintza hauek bete behar ditu:

- Erretiro-pentsioak sortutako eskubideen balioaren % 10 izango da gehienez kobratutako

5. Pentsioak desmetatzeko praktikei edo kobratzeko moduei buruzko eztabaidak

zenbatekoa.

- Kapital gisako kobrantza partziala erretiro-pentsioa hasten den egunean egin behar da, edo legezko erretiro-adina betetzen den urtearen hurrengo otsailean.
- Kapital gisako kobrantza partziala ezin da konbinatu alta eta bajako akordio baten aplikazioarekin. Kasu horretan, aukera dago erretiro-pentsioaren maila aldatzeko; erretiroa hartu ondorengo lehen urteetan pentsio-prestazio handiagoak ordainduko dira normalean.
- Bikote-pentsioaren onuraduna den bikotekidearen baimena izan behar du afiliatuak.

Erretiro-pentsioaren zati kommutatuak aurreko enpleguko soldata gisa tributatuko du, eta ez du interesik sortuko.

6.

IDEIA NAGUSIAK

6. Indar-ideiak

- **Sistema osagarrien garapen sendoa:** sistema osagarriak garapen handia izaten ari dira, nahitaezko edo ia-nahitaezko sistemen bitartez edo finantza-pizgarrien ondorioz, era horretan pentsio publikoaren eta pribatuaren artean lortutako estaldura-mailak kontsumoa bizi-zikloan behar bezala banatzeko aukera eman dezan.
- **Pentsioak kobratzeko askotariko formulak:** estatu kideetan, enplegu-planetako kideek, oro har, aurrezkiak kobratzeko hainbat aukera dituzte.
- **Biziarreko errentak ez du lortzen pentsioak kobratzeko aukeren artean behar lukeen garrantzia:** enplegu-sistema gehienek errenta gisa kobratzeko aukera ematen dute, baina biziarreko errenta gisa kobratzea beste hainbaten arteko aukera bat gehiago besterik ez da. Errentek, pentsiorako aurreztutakoa desmetatzeko modu gisa, ez dute behar luketen garrantzia lortzen.
- **Kapital gisa kobratzeko aukera ematen duten estatu kideak nagusi dira:** IORP sistemei begiratzen badiegu, EIOParen 2014ko txostenaren arabera, pentsioa ordainketa bakar gisa kobratzea hiru herrialdetan baino ez dago galarazita: Herbehereetan, Suedian eta Norvegian. Herbehereetan gaur egun egiten ari diren erreformek baldintza hori malgutu nahi dute.
- **Formula mistoen garapen progresiboa:** tresna espezifikoetan desmetatzeko, kapitalen edo errenten bidez egin daiteke. Formula mistoak pixkanaka ari dira garatzen (programatutako diru-ateratzeak, esate baterako).
- **Tresna ez-espezifikoen garapenaren aurreikuspena (etxebizitza, adibidez):** dirudienez, garapen nabarmena ere izango du etxebizitza bezalako tresna ez-espezifikoen bidezko desmetatzeak (alderantzizko hipotekekin, esaterako).
- **2011n, biziarreko errenta gisako kobrantza zen nagusi EFRPtik zetozen pentsioetan.** % 45ek errenta aktuarial gisa kobratzen zuten pentsioa, eta % 25ek errenta motaren bat kapitalarekin konbinatzen zuten. Gainerakoetatik, kapital gisako kobrantza zen aukera nagusia.
- **Spainian, 2021ean, enpleguko pentsio-planetako pertsona pasiboen % 54k errenta gisa kobratu zuten prestazioa.** Kapital gisa kobratu zuten onuradunen % 30ek, eta % 10ek formula mistoak hautatu zituzten. Enplegu-sistemetan errenta gisako kobrantzaren garrantziak azken urteetan gora egin duela egiaztatzen da.
- **EAEko enpleguko BGAEetan, 2021ean, errenta aktuarial gisako kobrantza da nagusi.** 2021ean, bazkide pasiboen % 73k formula hori aukeratu zuten (% 15ek kapital gisa kobratuz, eta % 12k finantza-errentaren bidez).
- **Ikusitako erreformen bitartez aldaketak egin dira pentsioak kobratzeko moduan malgutasun handiagoa egon dadin.** Hala Erresuma Batuan nola Herbehereetan neurriak hartu dituzte edo hartuko dituzte aurreztaileek malgutasun handiagoa izan dezaten desmetatzeko aukerei dagokienez.

6. Indar-ideiak

- **Zailtasunak eskariaren aldetik biziarteko errentak garatzeko:** Diego Valeroren «*Tendencias en materia de pensiones privadas. El papel de las rentas vitalicias*» (Pentsio pribatuen arloko joerak. Biziarteko errenten zeregina) txostenak adierazi bezala, biziarteko errentak inbertsio-tresnatzat hartzen dira, eta ez dira oso erakargarriak horregatik. Aseguru-produktu baten modura ikusi beharko lirateke, zeinak babesten baitu metatutako aktiboak bizi-luzetasuna estaltzeko nahikoak ez izateko arriskutik; hau da, bermatu egiten du pertsonak diru-sarrerak oraindik jasoko dituztela jardueran zehar baliabideak metatzean aurreikusi baino gehiago iraunez gero. Pertsonak joera dute bizi-luzetasuna gutxiesteko, edo epe laburrari luzeari baino balio handiagoa emateko. Gainera, pentsio-sistema publikoek ezarritako biziarteko errenta moduko oinarritzko estaldurak emandako lasaitasunak ez du laguntzen pentsio pribatuetan biziarteko errenten eskaria areagotu dadin, eta kapitala ateratzera ere, bultzatu ahal du, gainera, ezohiko jardueretara bideratzeko. Beste arazoetako bat zera da: herrialde batzuetako egitura fiskalak biziarteko errentak kontratatzekeo pizgarria kentzen du. Finantza arloko hezkuntzarik eza ere bada oztopo handi bat. Izan ere, finantza-hezkuntzako mailak, oro har, ez dira nahikoak pentsioarena bezalako erabaki garrantzitsuak hartzeko. Informazioa ez da behar bezain ulergarria izaten, eta jendeak, oro har, produktu horiei buruz duen iritzia baliteke eskasa izatea. Azkenik, berrikuntzarik eza da kontuan hartu beharreko beste zailtasunetako bat. Biziarteko errenten erosle potentzialak kezkatzen dituen beste gai bat legatua uzteko gaitasunik gabe gelditzea da. Era berean, produktu orekatuak bilatu behar dira; izan ere, erabiltzaileek oinarritzko produktuaren berme osagarri ugari aukeratzen dutenean, prezioak ez dira inola ere lehiakorrak. Gaur egun, berrikuntza honelako produktuen eskutik iristen ari da: *annuities* aldagaiak, alderantzizko hipotekak edo urteko diru-sarrerak jasotzea eta mendekotasuna estaltzea konbinatzen duten produktuak.
- **Zailtasunak eskaintzaren aldetik biziarteko errentak garatzeko:** Diego Valerok, aipatutako artikuluan, agerian uzten du biziarteko errenten merkatuak honako arazo hauek izateko joera duela: antihautapena (osasun hobea eta bizi-itxaropen hobeak dituzten pertsonak biziarteko errentak hobesten dituzte, eta egoera hori ez dutenek bestelako kobrantza motak nahiago dituzte, hala nola kapital edo errenta ez bermatu gisa); osatugabea izatea (ez dago nahikoa elementu inflaziotik babesteko; ez dago akzioekiko esposiziorik), kapital arautzailearen baldintzak aldatzen ari dira (eta ez murrizteko, gainera; horren ondorioz, arlo horretako negozio aseguratzaileak errentagarritasuna galtzen du), eta, bereziki, arazo larria dago bizi-luzapenaren arriskua estaltzeari dagokionez.
- **Sektoreko adituek produktu erakargarriagoak eskaintzea defendatzen dute.** Desmetatzeko prozesuaren ikuspegi orokorra hartu beharra planteatzen dute, pertsonen bizi-premia guztiak kontuan hartuta, produktu erakargarriagoekin (programatutako diru-ateratzeak, *annuities* aldagaia, alderantzizko hipotekak, biziarteko errenta geroratuak), pentsioaren onurak azaleratzen dituzten formula egonkorren hazkunde ordenatua eta beharrezkoa lortze aldera.

6. Indar-ideiak

- **Sistemak konplexuegiak izatea eragotzi behar da fase guztietan, baita kobratzeko moduari dagokionez ere:** argi dago sistema osagarriak sinpleak, gardenak eta merkeak izan behar direla. Pentsio-planen antolaketan eta horiek kobratzeko formuletan konplexutasun handia dago, eta horrek horrelakoetarako sustagarria kentzen du argi eta garbi.
- **Lan-eremu garrantzitsuak: finantza-aholkularitza eta merkatu helduagoak eta lehiakorragoak bizi-luzetasuna estaltzean.** Alde batetik, pentsioen onuradun izan daitezkeen herritarrei informazioa eta finantza-aholkularitza eskura jartzeari dagokionez sakontzeko beharra dago, eta, bestetik, bizi-luzetasunaren arriskua estaltzean merkatu helduago eta lehiakorragoak lortzeko bidean aurrera egiteko beharra.

Eranskina **BIBLIOGRAFIA**

Eranskina: Bibliografia

BIBLIOGRAFIA

EUSKO JAURLARITZA, FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA	<i>Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarria. Txostena, 2021</i>
EKONOMIA ETA ENPRESARI LAGUNTZEKO ESTATU IDAZKARITZA ETA ASEGURUEN ETA PENTSIO FUNTSEN ZUZENDARITZA NAGUSIA	2020-2021 txostena
ELGA	<i>Financial incentives for funded private pension plans</i>
ELGA	<i>Pensions at a Glance 2021 Country Profiles-Netherlands</i>
ELGA	Pensions at a Glance 2021: Country Profiles-United Kingdom
EIOPA	<i>Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries</i>
EIOPA	Fact_Finding_Report_on_Decumulation_Phase_Practices.pdf https://register.eiopa.europa.eu/Publications/Reports/EIOPA-BoS-14-193_EIOPA_s_Fact_Finding_Report_on_Decumulation_Phase_Practices.pdf
INVERCO	<i>Sistemas de Pensiones Experiencia Española e Internacional</i>
SOCIAL PROTECTION COMMITTEE AND THE EUROPEAN COMMISSION.	<i>Pensions Adequacy Report</i>
EUROPEAN COMMISSION	<i>Study on the performance and adequacy of pension decumulation practices in four EU countries</i>
Ángel Martínez-Aldama (INVERCO)	<i>Sistemas de Pensiones: Experiencia internacional</i>
Diego Valero (NOVASTER)	<i>Tendencias en materia de pensiones privadas</i>
UK Options	<i>Compare options at retirement - Retirement planning The People's Pension (thepeoplespension.co.uk)</i>
ABA (Arbeitsgemeinschaft für betriebliche Altersversorgung e.V.)	<i>The Occupational Pension Landscape in Germany</i> https://www.aba-online.de/
NBER (National Bureau of Economic Research)	<i>Riester pensions in Germany: design, dynamics, targetting success and crowding-in</i> http://www.nber.org/papers/w18014
PENSIOEN FEDERATIE	<i>The Dutch pension system: highlights and characteristics</i> (pensioenfederatie.nl)
DIW Weekly Report	<i>DIW Berlin: 20 Years of the Riester Pension - Personal Retirement Provision Requires Reform</i> https://www.diw.de/en
KPMG, Meijburg & Co Tax & Legal	Lump Sum Payment, Early Retirement Scheme and Leave Savings Scheme Bill
UK Government Website	https://www.gov.uk/workplace-pensions

ONLINE ALDERATZEKO TRESNAK

Herrialdea	Alderatzeko tresna
Erresuma Batua	www.moneyadviceservice.org.uk (independentea) www.onlineannuityplanner.com (komertziala)
Herbehereak	www.consumentenbond.nl (independentea) https://www.123lijfrente.nl/ (komertziala)
Alemania	www.check-sofortrente.de (komertziala) www.check24.de (komertziala)